



2011-2012

A – 4. Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programa (HBSP)

Deialdiaren xedea

Deialdiaren xedea da Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei dei egitea Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programak (HBSP) abiaraz ditzaten, baldin eta gizarte- edo kultura-egoera zailtan dauden edota eskolan moldatzeko zailtasun handiak dituzten DBHko 1. eta 2. mailako ikasleekin hezkuntza-ekintza zehazten baldin badute. Programa ingurune arruntetan garatuko da, inklusibotasunean oinarrituta. Proiektu horiek 2011-2012 ikasturterako onartuko dira soilik.

Esleipena

Programak 100 irakasle izango ditu, gehienez ere.

Eskaria egiten duten ikastetxeentzako baliabide-esleipena jarraibide orokorretan aurreikusitako Hautaketa Batzordearen bidez egingo da, lurralde historiko bakoitzeko Pedagogia Berrikuntzako Arduradunek hala eskatuta, zonaldekoetako Berritzeguneez dagokien azterketa egin ondoren. Esleipen hori 3 irakaslekoa izango da gehienez ere, eta ikastetxeetan dauden giza baliabideen azterketaren mende ere egongo da.

Hartzaileak

Programa honen hartzaileak izango dira Abenduaren 31 baino lehen 13 edo 14 urte bete dituzten neska-mutilak, DBHko 1. edo 2. mailan matrikulatutakoak, eta honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

- eskolan atzerapen handia izatea, batez ere arlo instrumentaletan, eta atzerapen hori gizarte-egoera kaltetuetan egotearekin loturik egotea.
- eskolara egokitzeko arazoak izatea, eta sarritan ikasketetan atzeratuta ibiltzea.

Salbuespen gisa, 15 urteko ikasleak ere sar daitezke programan, goian zehaztutako baldintza beretan, baldin eta irakasleek uste badute ezin dutela DBHko 3. mailara igaro, eta ez daudela Hasierako Lanbide Prestakuntza edo Curriculum Desberdinetako Programa egiteko moduan, ezta ere.

Eskakizun bereziak

- a) Ikasleen gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi behar zaie ikasleak programan parte hartuko duela, eta haien iritzia jaso behar da. Hori guztia ziurtatzeko, 2. eranskina aurkeztu behar da eskabidearekin batera.
- b) 2010-2011 ikasturtean HBSPrik izan ez duten ikastetxeek proposamen bat bidali beharko dute eskariarekin batera, honako informazio honekin:
 - Programa Garatzeko Jarraibideen ikuspuntua jasoko duen hezkuntzaren alorreko esku-hartzearen sintesia.
 - Proiektuan sartzen diren eskaerak:
 - Proposatzen diren aldaketak gauzatzeko behar diren ohiz kanpoko giza baliabideak, eta
 - beharrezko aholkularitza eta prestakuntza.



Programa garatzeko jarraibideak

Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programak hezkuntza-berdintasuna bermatzeko xedea du; hala, bada, hezkuntzako erantzun egoki eta kalitatezko bat eman nahi die gizartean aukera gutxiago dituzten ikasleei, edo DBHren aurretiko zikloetako gaitasunak bereganatu ez dituzten ikasleei, beren ohiko eskola-ingurunean derrigorrezko ikasketetako helburuak lortzen laguntzeko. Orobat, eskolara moldatzen ez diren ikasleei harrera- eta moldatze-prozesuak eskaintzeko asmoa du, hezkuntza-sisteman beren beharrianetara egokitutako erantzun bat aurki dezaten.

Gisa honetako proiektuak garatuko dituzten ikastetxeek honako ekintza-ildo hauek hartu behar dituzte aintzat:

- HBSP ikastetxeko ikasleen aniztasunari erantzuteko plangintza bateratu eta oso baten baitan txertatu behar da, eskola inklusiboaren proposamenetan oinarrituta. Ikastetxe osoari eragiten dion proiektu bat da, orientatzaileak koordinatuko eta zuzendaritza-taldea buru izango duena, baita jarraipen sistematiko bat eduki ere.
- HBSPk aurre hartzeko estrategiak bultzatzen ditu, erantzutekoen tokian; horretarako, ohiko ikasgelaren barrurako diseinatzeko erantzunak, antolamendu eta metodologia-aldaketak ekarriko dituztenak.
- Aldaketa horietako bat izan daiteke oinarritzko gaitasunen garapena curriculumeko hainbat ikasgai biltzen dituzten proiektuen bidez antolatzea, edo arloka lan egitea, hainbat jakintza biltzen dituen moduan, besteak beste.
- Programa osatzen duten jarduera zein baliabide guztiak, ikastetxean ohizkoak zen ohiz kanpokoak direnak, ikasle guztien eskola-arrakasta lortzera bideratu behar dira, deialdiaren xedean aipatzen diren egoeretan dauden ikasleei arreta berezia eman behar bazaie ere.
- Gauzak horrela, garrantzia berezia hartzen du ikasle horiei beren berezko taldearen barruan (ikasgela heterogeneoak, eta ez berariazko sostengua behar duten ikasle guztiak biltzen dituen) arreta pertsonalizatua emateak, honako neurri hauetan oinarrituta: plan pertsonalizatuak, bana-banako tutoretzak, egoera berean dauden ikasleekin egindako tutoretzat, pedagogia-kontratuak, ikasle enbaxadoreak, berbalaguna, aurre hartzeko sendotze-lanak ohiko ordutegietatik kanpo (PROA, arratsaldeko tutoretzak, gizarte-heziketako tailerrak, ikasle helduagoen laguntza...).
- Ikaskuntza hobetzeko estrategia inklusiboak erabili behar dira, egoera berean dauden artean eta pertsona helduekin harremanak izatea bultzatuko dituztenak, adibidez:
 - talde bakoitzeko irakasle-kopurua murriztea, hau da, irakasle batek ikasgai bat baino gehiago ematea, arlokako ordutegiak antolatzea, talde bateko tutoreak hainbat ikasgai irakastea, etab.
 - ikasgela batean bi irakasle egotea, talde elkarreragileak, solasaldiak, tutorepeko biblioteka, talde-lana, etab.
 - IKTak sarriago eta hobeto erabiltzea,
 - ikasleentzat esanahia duten testuingurutan kokaturiko zereginak,
 - proiektuak, irteera pedagogikoak, elkartasunezko ikaskuntza eta zerbitzuak,
 - etab.
 -
- Sostenguak eta koordinazioa errazteko irakasle-kopuru txiki baten artean banatuko dira orduak.



- Programa bultzatzeko, ezinbestekoa da irakasle guztien arteko koordinazioa, bai bertikala bai horizontala; batez ere, proiektuaren xede diren ikasleak dauden taldeekin harremanak izango dituzten irakasleen arteko koordinazioa.
- HBSPk senideekiko harremana eta horien parte-hartzea landu behar du, baita prestakuntza jasotzeko aukera eman ere, eskolako emaitzak hobetzeko eragiten duten aldagaiak baitira.
- HBSPk ikasleekin elkarreraginak dituzten inguruko eragileekiko koordinazioa bultzatu behar du.
- HBSP garatu eta programa geroz eta inklusiboagoa izan dadin, ikastetxeak barne-prestakuntza antolatu behar du, eta irakasleei (tutoreak, ikasketa-buruak eta orientatzaileak, besteak beste) aukera eman Administrazioak ezartzen dituen prestakuntza-jardueretan parte hartzeko.

Betebehar bereziak

- a) Eskariaren xede diren ikasleen irakasle-talde osoak hartu behar du bere gain programaren ardura, orientatzailearen koordinaziopean.
- b) Ikasle horiek talde heterogeneo baten parte izango dira, eta ohiko ikasgela batean barneratuta egon beharko dute ahal bezain beste, joera uneoro haiekin egotekoa den heinean.
- c) Urriaren 15a baino lehen, ikasle bakoitzak bere **Banakako Lanerako Plana** izango du, Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo dena. Plan horrek ikasle bakoitzaren egoera pertsonala aintzat hartuko du, eta datu hauek jaso behar ditu, gutxienez: *ikaslearen hezkuntza-premien deskribapena*,
 - *hainbat eremu jorrazteko lan-proposamena (zer, noiz, nola...),*
 - *tutoretza pertsonalizatua (nor, noiz, zertarako...),*
 - *hezkuntza-errefortzua derrigorrezko ordutegitik kanpo (PROA, arratsaldeko tutoretzak,...), hartu-emanak senideekin,*
 - *planaren jarraipena eta ebaluazioa.*
- d) Ikastetxeek urriaren 30a baino lehen bidaliko diote Hezkuntza Ikuskaritzari programan parte hartuko dute ikasleen zerrenda, 3. eranskineko ereduaren arabera.
- e) Ikasturte bakoitzaren amaieran, ikaslearen tutoreak, irakasle-taldeak adierazitakoa entzun ostean eta ikastetxeko orientatzailearen laguntzaz, Banakako Planaren balorazioa egingo du. Balorazio horretan, hezkuntza-prozesua jarraitzeko gomendioak adieraziko ditu.

Baremoa

1. Zonaldeko Berritzeguneak aztertuko ditu proiektuak eta programak.
 - a) 2010-2011 ikasturtean programa garatzen ari diren ikastetxeak
Garatutako programaren balioespina: **30 puntu, gehienez ere.**
Proiektua aukeratu ahal izateko 16 puntura iritsi beharko da, gutxienez ere.
 - b) 2010-2011 ikasturtean programa garatzen ari ez diren ikastetxeak
Aurkeztutako programaren balioespina: **30 puntu, gehienez ere.**
Proiektua aukeratu ahal izateko 16 puntura iritsi beharko da, gutxienez ere.



2. DBHn bekarekin matrikulatutako ikasleen ehunekoak (**E**). (2010-2011 ikasturteko datuak)

$E < 40$	0 puntu
$40 \leq E < 50$	puntu 1
$50 \leq E < 60$	2 puntu
$60 \leq E < 70$	4 puntu
$70 \leq E < 80$	6 puntu
$80 \leq E < 90$	9 puntu
$90 \leq E$	12 puntu

3. DBHko 1. eta 2. mailan matrikulatutako ikasleen ratioa
Ratioa > 20 ikasle: 5 puntu

GARRANTZITSUA: Programak bat etorri behar du deialdiko jarraibide orokorretako eskakizunekin (2. jarraibidea), betebeharrekin (zazpigarren jarraibidea) eta jarraipen eta ebaluazioarekin (9. jarraibidea).

**A- 4. 1A ERANSKINA****HEZKUNTZA BERARIAZ SENDOTZEKO PROGRAMAREN
ESKABIDEA**

Ikastetxea:Kodea:

Udalerrria:Lurraldea:

Goian aipatutako ikastetxeko zuzendariak jarraian adierazitako irakasle-kopurua eskatzen du 2011-2012 ikasturtean Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programa bat gauzatzeko, emandako datu orokorren aurreikuspenaren arabera.

Irakasle-kopurua: Irakasle-kopurua, ohiz kanpoko giza
baliabide gisa:

.....(e)n, 2011koren(e)(a)n.

Ikastetxeko zuzendariaren sinadura



A- 4. 1B ERANSKINA

..... TALDEA

PROGRAMAN PARTE HARTUKO DUTEN IKASLEAK

Ikastetxea: Kodea:

Udalerria: Lurraldea:

ABIZENAK ETA IZENA	Ikasturtea ¹	Jaiotza-urtea	Erreferentzia-maila ² .	Hezkuntza-atzerapen larriko arloak ³
1.				
2.				
3.				
4.				
5.				
6.				
7.				
8.				
9.				
10.				
11.				
12.				
13.				
14.				
15.				

1. 2011-2012 ikasturtean egongo diren maila.

2. Xedeak gainditu dituzten azken zikloa.

3. Adierazi atzerapen larria arlo guztiei dagokien, edo arlo jakin batzuei.

PROGRAMAN PARTE HARTUKO DUTEN IRAKASLEAK

ABIZENAK ETA IZENA	NAN	ADMINISTRAZIO - EDO LAN- EGOERA	ESPEZIALITATEA	DEDIKAIZIO- DENBORA	ADOSTASUNA

.....(e)n, 2011koren(e)(a)n.

Ikastetxeko zuzendariaren sinadura



A- 4. 2 ERANSKINA

GURASOENTZAKO EDO LEGEZKO ORDEZKARIENTZAKO INFORMAZIOA

..... Ikastetxeko zuzendariak zinpean adierazten du ikastetxeak aurkezten duen Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programa jasoko duten ikasleen gurasoek edo legezko ordezkariak informazioa jaso dutela ikasle horiek programan sartzeko arazoiei buruz, baita lortu nahi diren helburuei eta gauzatuko diren jarduerari buruz ere.

- Guztiek adierazi dute beren adostasuna.

- Guztiek adierazi dute beren adostasuna, honako ikasle hauen gurasoek izan ezik; azken horien iritziak jasota daude.

.....(e)n, 2011koren(e)(a)n.

Ikastetxeko zuzendariaren sinadura



A- 4. 3 ERANSKINA

PROGRAMAN PARTE HARTUKO DUTEN IKASLEEN ZERRENDA

(Urriaren 30a baino lehen bete eta Hezkuntza Ikuskaritzari bidali beharrekoa)

Ikastetxea:Kodea:

Udalerrria:Lurraldea:

ABIZENAK ETA IZENA	Jaiotze- data:	Ikasturtea (1)	Oharrak
1			
2			
3			
4			
5			
6			
7			
8			
9			
10			
11			
12			
13			
14			
15			

1). 2011-2012 ikasturtean matrikulatuta egongo diren maila.

.....(e)n, 2011koren(e)(a)n.

Ikastetxeko zuzendariaren sinadura